
KULTURA ETA BALOREAK

SAR HITZA

Askotan hitz egiten da kulturaz, edozein herriren muina den horretaz, baina lan zaila da kulturak bere baitan esan nahi duen guztia azaltzea. Belaunaldiz belaunaldi kultura garatu egiten da, garai ezberdinetan norbanako bakoitzak egoera ezberdinen aurrean egindako, esandako eta entzundakoa jaso eta transmitituz, giza kolektibo oso baten ondare propio bihurtua ageri zaizkigu bizipen guzti horiek. Beraz, herri baten kultura, Barandiaranen hitzetan, honakoa izango litzateke "eguneroko bizitzak planteaturiko oinarritzko arazoei Euskal Herriak ematen dizkien soluzioen multzoa litzateke". Beraz, norberaren ikuspegi propioaz ari gara (pertsone bakoitzak egoera ezberdinen aurrean erantzun ezberdinak ematen ditu), baina baita ikuspegi propioa duten giza taldeez (ideologia berekoak, janzkera berekoak, zaletasun berekoak,...). Baina kultura ez da zerbait zurruna; aitzitik, etengabeko mugimenduan den zerbait da. Izan ere, kultura toki eta garai zehatz batean biltzen diren balore eta adierazpenen multzoa da. Beraz, tradizioa ezagutu bai, baina etengabe berrikuntzan dagoen tresna bezala ulertuta. Berriak diren mugimendu zein joera berriei ateak ireki eta irakurketa propioa egitea beharrezkoa da. Kolektibo zehatz baten kultura etengabe berritzen da beste kolektiboetako kulturen arteko elkarrekintzaz baliatuz. Beraz, kultur elkarrekintza positiboek edozein kultura aberasteko baliagarriak dira. Hala ere, badira elkarrekintza negatiboak, eta hauek gertatzen dira kultura bat bestearen gain inposatzen denean eta batak bestea baztertzen eta zokoratzen duenean.

Zer da bada, euskal kultura? Euskal Herrian gure herriko eta munduko gauzak begiratzeko dugun modua. Gertaeren aurrean, adierazpide ezberdinen aurrean, balore jakin batzuen aurrean herri honetatik ematen zaion begiraden multzoa osatzen du euskal kultura, etengabe garatzen ari den euskal kultura, alegia. Tradizioa ezagutuz, egun gure gizartera datozkigun joera berrien aurrean egiten dugun irakurketa eta hortik hartzen dugun gauzen multzoak eratuko luke euskal kultura.

Euskal Herriko kultur ondarea etengabeko berrikuntzan egon da, eta horrela, nazioarteko gainontzeko kulturekin hartu-emanetan izan da, eta hainbat maileguren bidez, adierazpide ezberdinak gure kulturaren barneratzen joan dira. Euskal kulturaren garapen honetan, euskal gazteriak zeresan handia izan du, hainbat adierazpidetan, esate baterako, musikan edo eta bertsolaritzan.

GAZTERIAREN PARTE-HARTZEA KULTURAN

Alde batetik, tradizioari loturik eta bertatik urteetan zehar garatu den hizkuntza dugu euskara. Berezko hizkuntza gure kulturaren oinarriarik sendoena izan da, belaunaldiz-belaunaldi oztopoak oztopo zutik iraun izan duena. Ildo beretik, aspalditik ditugu gurean bertako dantzak, bertako ohiturak, bertako lanbide zaharrak, bertsolaritza, herri kirolak,... horiek guztiak egun ere gure kulturaren oinarrietariko bat dira.

Bestalde, badira jatorriz gure herrikoak ez diren, baina gure kulturak barneratu dituen hainbat adierazpide. Adibideak nonahi aurki daitezke, hala nola musika, kirol, margogintza edo arkitektura alorretan. Gure kulturak, mugak irekitzen jakin izan du, eta harremandu egin da beste hainbat herrietako kulturekin.

Euskal gazteriak gure kulturari ekarpen handia egin dio eta zeregin horretan dirau. Hainbat gazteren konpromisoari eta sorkuntzari esker herri bizia garela esan dezakegu. Izan ere, gure herrian gazte asko inplikatu da, dela musika talde bat sortzeko, dela elkarteetan antolatzeko, dela bertsoegintzan, dela herriko ekimen kulturalen antolakuntzan.

Euskal Herrian kaleak garrantzia handia izan du kulturaren zabalkunderako. Kaletarrak izanik, egitasmo gehienak kalean egin izan dira, kaleko antzerkitik, musika emankizunetara, dantza ikuskizunetatik herriko jaietara. Herritartasuna oso zabaldua dago gure herrian eta honek gure arteko komunikazioak eta harremanak indartu izan ditu.

Ezagunak dira gure artean, eta sarri munduan ere, gure herrian egiten diren hainbat ekimen eta jaiak ere. Batez ere, jai eta ekitaldi horien inguruan antolatzen diren gazte kopuru handia eta beraietan era zuzen batean parte-hartzeko borondatea, dira aipagarriak. Antolatzeko eta parte -hartzeko grina oso hedatua dago gure herriko hainbat gazteren artean.

KULTURAREN GLOBALIZAZIOA

Gaur egun, munduan zabaldu den globalizazioak kulturaren, eta batez ere, kulturaren bizipen eta funtzioetan, aldaketa nabarmenak ekarri ditu. Gure jendartearen merkatuaren legea nagusi da, eta alor guztietara zabaldu ditu bere atzaparrak. Izan ere, kultura kontsumorako beste adierazpide batetan bihurtu da, prezioaren arabera saldu egiten dena. Globalizazio kapitalistak kulturaren uniformizazioa bultzatzen du, bertsio bakarra indarrean jarri nahi du, kritikotasunaren, sormen gaitasunaren eta aniztasunaren kaltetan. Uniformizazio kultural honek, balore zehatz batzuen gailentzea ekarri du, hala nola indibidualismoa eta lehiakortasuna eta gure kultura kontsumo gai bihurtu du. Inposatzen den kultura bakarra horrekin sistemari komeni zaizkion baloreak nagusitzen ari dira. Kontsumismorako joerek, aisialdia kontrolatzeko errek, teknologia berriek zabaltzen duten bizi ereduak,... guzti honek gure kulturaren eragin handia izaten ari du, eta pixkanaka gure bizimoduetan sartzen ari da, gure identitate kolektibo zein norbanakoa alboratuz zein euskal kultura diskriminatuz. Horrela lana eta kirolarekiko grina neurrigabe nabarmentzen ari da, menpekotasuna eraginez eta autonomia baztertuz. Sarri, euskaraz transmititzen diren kultur adierazpidetan, kultura uinformizatzaile bera erreproduzitzen da, balore eta jarrera berdinak errepikatuz.

Prozesu guzti honek jendartearen gaineko kontrola areagotzeko neurrien zabaltzea ekarri du. Sistemak badaki pertsona guztiak zerbaitekin identifikatu, zerbaiten partaide izan edo zerbaitekiko sentimendua izan behar dugula. Horrela, eredu uniformizatzaileak jarri ditu indarrean, denek jarrai ditzaten, eta azkenean, tokikoa edo hurbilena izan daitekeenaren kaltetan.

Hortaz, bizitza eredu inposatua pairatzen dugu gazteok. Historikoki izan dugun sormen kritikorako eta eraldatzailerako gaitasunaren aurrean, sorkuntza ezak, autogestioaren bazterketak, dirua gastatzeak edo neurri gabeko kontsumoak tokia hartu dute. Kultura, salgai dagoen beste produktu bat den heinean, dirua izatea beharrezkoa da egun kulturaz gozatu ahal izateko. Balore zein jarrera guzti hauen nagusitasunek gastatzeko dugun diruaren arabera gazteen artean klaseak sortzea ekarri du. Zenbat eta diru gehiago, ahalik eta bezero hobeagoa zara.

Hainbat kultur adierazpideren pribatizazioa gure herrietan nagusitzen ari den fenomeno dugu. Kulturaren elitizazioa ematen ari da; hau da, herritarrok ez ditugu eskuragarri kultura sortzeko adina bitartekorik. Kultura, ez dago edonoren esku, aitzitik, enpresa ezberdinek kultura negozio bilakatu dute, eta hainbat zerbitzu pribatizatu dituzte. Ildo beretik, gure herrietan honen adibide garbia ditugu jaien herrikoitasunaren galera. Adierazpide kulturalik garrantzitsuenetarikoak dira gure herrietako jaiak. Are aberatsagoa da, baina, jai horiek duten herritartasuna, historikoki herriak sortu eta kudeatutako espazioak izan baitira. Azkenaldian, ordea, enpresa pribatuen esku edo udalen gehiegizko kontrolaren baitan daude.

Hala ere, aipatu beharrekoak dira globalizazio prozesu honek positiboago baloratzeko adierazpideak badituela ere. Mugen irekierarekin, ateak ireki zaizkio gure kulturari gainontzeko herrietako kulturekin harremantzeko eta gauzak elkartrukatzeko. Kultur aniztasuna sendotu eta indartu da, neurri handi batean, komunikazio bitartekoen zabalkuntza eta ugaltzeari esker. Honek aukera eman du gurea bezalako komunitate txikien arteko elkarlana bultzatzeko. Aipagarria da, musika zein kirol eremuetan ekarritako aurrerapenak edo eta komunikabideetan, liburugintzan edo musikagintzan gure kulturarako izandako aurrerapausoak. Azkeneko urteetan hainbat herrietatik etorritako etorkin kopuru handiak kultur aniztasunerako eta elkar harremantzeko aukera zabaldu duen arren, askotan, jatorri kultural ezberdin hauetako gazteak nolabaiteko ghettoetara bideratzen dituzte eta traba anitz jartzen dizkiete hainbat eremutan, bizi diren herrian erabat integratzeko zailtasunak areagotzen direlarik.

Kulturaren uniformizazio honen aurrean, ahots kritikoak ugaltu eta sendotu egin dira. Desberdinak izateko eskubidearen apologia, demokrazian sakontzeko eskakizunak, kultur gutxituen berbaieztapena, gaztearen autonomiaren garrantzia bezalako jarrera kritikoak zabaldu dira Euskal Herrian. Norberaren autonomiatik hasita, guztion eskubideen bermerako, elkar harremantzeko grinek indarra hartzen ari diraute. Erabakiak askatasunean hartzeko benetako askatasuna izateaz ari gara.

Globalizazio prozesu honetan teknologia berrien nagusitasuna aipagarria da. Gazteak dira berrikuntza hauen aurrean hobekien prestatu direnak, baina baita, teknologia berri hauetatik eratoritzen diren arazoek biktima nagusienak bihurtu direnak ere.

GAZTEEN JARRERA ETA BALOREAK

Arestian aipatu guztiak, gazteen jokabide eta baloreetan hainbat aldaketa ekarri ditu. Komunikazio talde handiek eta aisialdiko enpresa handiek gazteriarengan eragin handia dute, eta honek hainbat baloreen nagusitasuna dakar. Indibidualismoaren eta

lehiakortasunaren jendarte honetan hainbat dira frustazioagatik, identitate arazoengatik, bakardade sentimenduagatik edo depresioengatik kaltetutako gazteak. Sistemak, gazte eredu zehatz bat inposatzen du, eta denak eredu horren jarraitzaileak izatera bideratu nahi ditu. Horrela, gazteen artean ez dira gutxi anorexia, bulimia edo psikologoaren menpean daudenak. Emakume gazteak dira, nagusiki, gaitz hauek pairatzen dituztenak. Kezkagarria da, urtero Euskal Herrian bere buruaz beste egiten duten gazteen kopurua.

Gazteen bizi baldintza egoera larriak erabat lotuta agertzen zaigu ondotik nagusitzen diren jarrera eta baloreekin. Izan ere, gazteen autonomia eta burujabetza atzeratzen dituzten faktorerik garrantzitsuena lan baldintza kaxkarrak dira. Lanen prekaritatea da nagusi eta sistemak gaztea horrelako egoera bat onartzera eta bizitza osoan zehar etengabe bere formazioa garatzen joatera behartzen du. Lan malgutasuna, bizitza osoan ikasten jardutea, teknologia berrien inguruko ezagutza izatea, eleanitza izatea, mugitzeko eta bidaiatzeko prest izatea,... funtsean sistemak bideratzen duena jarrera kontserbadore eta indibidualisten garapena da. Bizi eredu honek errotik baztertzen du sormenerako eta autogestiorako gaitasuna, eta gaztearen garapen integrala kolokan jartzen du. Bizitza eredu inposatu honen jarraipenak, eta ondorioz, eskatzen diren helburu estetiko, ekonomiko, kulturalak ez betetzea frustazioan barneratzen du gazteria.

Sarri, familiak eta hezkuntzak ez dituzte gaztearen beharrak asetzen. Familiak askotan, gehiegizko presioa eragiten du gaztearengan, gehiago ikasi, formazioan sakondu, teknologia berriak ikasi, egunero ikasten egotea,... Gainera, familiarekiko dependentzia eta independizatu ezin izanak gaztearen garapena atzeratzen du. Hezkuntzak berriz, gabezi handiak ditu eta hankamotz gelditzen da, indibidualismoa eta lehiakortasuna bultzatzen duelarik, etengabeko azterketen bidez edo neurrigabeko etxeko lanen bidez, memorizazioaren bidez,... Ez da erraza gaztearentzat horrelako ingurune zorrotzean bizitzea, eta asko dira gaztearengan frustrazio, etsipen edo depresioak eragiten dituzten faktoreak.

Horrela gazteriarri sistemak eskaintzen dion alternatiba ihes egitearena da. Modaren bidez, gorputz eredu eta janzkera zehatzak zabaltzen dira, merkatal gune handietara joatea, kontsumo konpultsiboa, desfasea, jarrera biolentoak, kirol ikuskizunak, arrazakeria jarrerak, emakumearen aurkako tratatu txar edo erasoak,... Halaber, sistemak bere egin ditu historikoki jarrera errebelde eta iraultzaileen erakusleak izan diren hainbat adierazpide, tatuaiak, piercinak edo punk estetika, esate baterako.

Desfasearen kultura hedapen zabala izaten ari du gazteriarengan. Egun ez dira txikiak arazoak drogaren kontsumo neurrigabearen harira, autoan azkar gidatzearen harira edo antsietate sexualari begira. Nagusitu dira gaztea bere indibidualtasunean garatzeko guneak, hala nola, elkarrekin hitz egin ezin den makro diskoak, tuning kultura,....

Beraz, arazoei aurre egin baino, egun sistemak bultzatzen duena egunerokotasuneko arazoei aurre egin baino, ihes egiteko aukerak eskaintzea da.

SORKUNTZARAKO BALIABIDEAK ETA ESPAZIOAK

Kultur egoera honen aurrean, gazteriarri kultura sortzeko eskaintzen zaizkion baliabideak oso eskasak dira. Areago, eskaintzen zaizkien baliabideak, kultura uniformizatzaile eta indibidualista erreproduzitzeko ematen zaizkie. Eskema horretatik ateratzen den kultur adierazpen berritzaile edo eraldatzaileei aukera gutxi eskaintzen zaizkie zabaltzeko, eta askotan, baztertutak izaten dira.

Gure kultura egitura sozial patriarkarrean garatzeaz gain, ikuspegi androzentriko, hau da, maskulinitasunaren perspektibatik irakurri, ulertu, zabaldu, hartu eta baloratzen da. Horregatik, emakume gazteak kultur eragile bezala ahaztuak izan dira eta hala da gaur egun ere. Esparru publikoan aritzeko zailtasunak hauek sortutako artearen inbisibilitatea eragin du arlo guztietan.

Bestalde, sorkuntzarako espazioen gabezia nabaria da Euskal Herrian. Aukera gutxi dago herri honetan kultur adierazpen ezberdinak zabaltzeko era aske batean. Kultura zabaltzeko toki asko pribatuak dira, eta udalen edo beste administrazioen menpe dauden hainbat lokaletan, gazteek eginiko adierazpen berritzaile eta eraldatzaileek tokirik izatea zaila izan ohi da.

Atalez atal bagoaz honakoa aurki dezakegu:

Musika:

Gure herrian ehunka gazte talde ari da bere tokia bilatu nahian eta musikaren munduan sartu nahian. Historikoki, aberatsa izan da gure herria musikagintzan, eta zeresan handia izan dute arrakasta horretan gazteek. Hala ere, azkenaldi honetan, zaila da aurkitzea gazte mailan proposamen berritzaileak. Krisi antzeko bat pasa du euskal musikak. Euskara musikan gero eta gehiago erabiltzen den arren, oraindik ere, gaztelera eta frantsesa nagusi dira euskal taldeetan. Asko dira gure herrian antolatzen diren jaialdiak, eta guzti horietan musikak protagonismo handia du. Dena den, oso zaila da herri bateko plazan edo areto handi batean jotzea. Talde askori, gaztetxeetan edo herriko lokal txikietan jotzea besterik ez zaie gelditzen. Espazioen inguruan, berriz, entsegu lokalen gabezia nabaria da gure herrietan. Lokal horiek izan beharreko sonoritate baldintzak eta gure herrian lokalen alokairua hain garestia izatea traba bat da hainbat gazte taldeentzat. Bestalde oso zaila da egun, disko bat grabatzea gure herrian. Diskoetxeek dena kontrolatzen dute, eta oso garestia da disko bat grabatzea. Esan daiteke, pribilegio bat dela egun disko bat grabatua izatea. Musikaren bidez, indarrean dagoen kultura uniformizatzaileak hainbat gazte barneratu ditu, eta horrek hainbat talderen kalterako izan da. Orain bakarrik arrakastarako musika izatea nahi da, gazte guapo eta guapak taldeko kideak izatea, helburua saltzea eta dirutza izugarria irabaztea baita. Diskoetxeek diskoaren irabazien % 90 poltsikoratzen dute eta taldeak kontzertuetatik ateratzen dutenaren zati bat eskuratzen dute. Oso zaila da egun, musikaren bidez eta musikarako bizitzea. Sistemak musika erabiltzen du, gazteen artean desideologijazioa, desmotibazioa

eta sistemarekin bat egiteko tresna moduan. Kontzertu asko egiten dira gure herrian, baina azkenaldian, makro kontzertuen inguruan, eztabaida dago, izan ere, betiko taldeak, lehen mailako taldeak, asko kobratzen duten taldeek parte hartzen baitute bertan. Euskal musika folklorikoaren inguruan, berriz, nahiz eta oraindik bere tokia izan, gazteen artean ez dago oso hedatua, eta taularatzen diren gazteek publiko gaztearen beharra dakusate.

Arte plastikoak:

Arte espresio ezberdinak ere, negozio bihurtuta ditugu aspaldian. Eremu honetan, gabezia handia dago bitartekoen harira, esan nahi baita, materialen eskuratzea, tailerren gabezia edo erakustaretoen sarrera zaila. Beraz, lehenik eta behin gazteek lantokien beharra dakusate. Eremu honetan, hainbat esperientzia kolektibo dago, non, espazio ezberdinetan, hainbat artista elkarren artean espazio berbera konpartitzen duten. Erakusteko tokien inguruan berriz, nahiz eta gure herrian hainbat museo egon, bertara soilik artista entzutetsuen obrak eramaten dira, eta askotan bertako artistak baztertuak izaten dira. Hala ere, hainbat kultur etxeetan gazteei beraien obrak zabaltzeko aukera eskaintzen zaie. Aipagarria da, kalearen garrantzia; izan ere, hainbat artistek kalea erabiltzen dute euren obrak azaltzeko, eta ez dira gutxi egunero kaleetan ikusi ahal direnak. Bestalde, materialak garestiak izaten oi dira mundu honetan, eta aipagarria da, material birziklatuen erabilerak gazteriaren baitan izaten ari duen arrakasta. Dena den, badira hainbat espresio, gure herrian oso errotuak dauden arren, errekonozituak ez direnak, esate baterako graffitigintza edo eta kartelgintza. Oztopoak oztopo, esan daiteke, gure herrian gazte artista asko daudela eta lantzen dituzten eremuak oso zabalak direla ere.

Dantza:

Euskal Herrian hainbat dantza joera lantzen dira, berezkoak diren euskal dantzak barne. Izan ere, gaur egun, dantza egiteko aukera zabala dago gure herrian. Dena den dantzatik bizitzea eta ogibide izatea ia ezinezkoa da. Euskal Herria dantzaren munduan ez dago lehenengo mailan. Kalitate oneko gazteak kanpora doaz dantza ikasketak egitera. Izan ere, oso dantza konpainia gutxi dago gure herrian. Biarritzeko konpainia salbu, ez dago lehen mailako konpainiarik eta gazteek Europa zein Amerikako hiri nagusietako eskoletara joan behar dira duten maila handitu eta garatzeko. Euskal dantzari dagokionez, eskola baten falta nabaria da. Euskal dantzari arnas berri bat emateko, sorkuntza, kalitatezko sorkuntza, behar da eta horretarako dantzari gazteak formatu behar dira, oinarri onekin kalitatezko sorkuntzak egiteko eta euskal dantza biziarazteko.

Euskal dantzen artean, berau egiten duten gazteak asko izan arren, herrietatik dagoen eskaria gero eta urriagoa da. Azkeneko urteetan euskal dantzen panorama neurri batean irauli dituzten taldeak sortu dira, tradizioa eta berrikuntza nahastuz. Honek eztabaida ekarri du euskal dantzen mundura, tradizio zaleen eta berrikuntza zaleen artean. Dena den, bien arteko oreka mantentzea irtenbiderik egokiena dela dirudi. Gazte askok euskal dantzak egiten dituzten arren, azkeneko urteetan beheranzko joera dagoela ematen du. Bereziki aipagarria da mutilen

artean eman den beherakada, ez bakarrik euskal dantzetan, dantza guztietan baizik. Or-har heziketan eta zabaltzen den kulturaren aurkitu genezake azken horren arrazoia. Bereko dantzak mundura zabaltzeko zailtasun handiak ditugu euskal herritarrek, munduan ezezagunak dira gure dantzak. Beste lurralde batzuetako dantzekin gertatu ez bezala, ez gara gure dantzen saltzaile onak.

Azkeneko urteetan beste dantza estilo batzuk arrakasta izaten ari dira. Hip-hop-a, kapoeira edo tangoa, esate baterako, hedapen handia izaten ari dira. Hala ere, eskaintzari begira, Euskal Herrian dagoen antzerki eskaintzarekin alderatuta, dantza saio gutxi eskaintzen da. Gure herrian esan daiteke, ohitura falta dagoela, eta sarri eskaintza garai oso zehatz batzuetara mugatzen da (antzerki eskaintza urte osoan zehar ematen den bitartean). Gazteok dantza saioetan dugun parte hartzeari erreparatzen badiogu, or-har nahiko eskasa dela esan genezake. Euskal Herriko gazteak dantza egiteko ezjakintasuna eta lotsa dugu. Gero eta erronmeria gutxiago antolatzen dira, eta egiten direnetan gazteen parte hartzea oso eskasa da. Halaber, orain dela gutxi arte plazarik plaza ibiltzen ziren gazte talde asko desagertu dira.

Bertsolaritza:

Hainbat dira gure herrian barrena bertsoaren bueltan mugitzen diren gazteak. Lekuan lekuko egoera desberdina bada ere bertso-eskola ugariak argitzen digute hartzen duen eremua zabala dela. Bertso-eskoletatik bertsolariez gain, bertso munduan beharrezkoak diren gai-jartzaileak, antolatzaileak eta batez ere bertsozaleak ateratzen dira. Bertsolari gazteen arazoa plazan kantatzeko aukeren falta izan da. Honi irtenbideak emateko elkartu eta saiakera ugari egin dituzte, eta baita lortu ere. Bertso saioak gazteak mugitzen diren esparru eta giroetara zabaltzen dituzte eta sarritan bertsolariak eurak dira antolatzaile ere. Esperimentaziorako tarteak ere ematen du bertsoak eta bertsoari berari beste buelta bat emateaz gain beste kultur espresio batzuekin harremanetan ere egin dira saiakera batzuk. Esan liteke bertsolari gazteak eta bertso-eskoletan dabilen gazteak konprometituta daudela bertsoak aurrera egin dezan.

Arte eszenikoak (egiteke)

Literatura: (egiteke)

